



Eustat

Informazio gehiago lortzeko
Para obtener más información
www.eustat.es

# Resultados positivos en ocupación y paro en 2001 para la C. A. de Euskadi

# Emaitza positiboak empleguan eta langabezian, 2001ean, Euskal AEn

El ejercicio económico del año 2001 se ha cerrado con un crecimiento del PIB en la C.A. de Euskadi estimado en torno al 3%, dentro de la tendencia de crecimientos positivos desde 1994. Aunque el del año 2000 fue del 5,3%, la previsión para este año es más acorde con la de la economía española, y en ambos casos superiores a la de los países de la Unión Europea, cuyo crecimiento previsto para el 2001 es inferior al 2%.

2001. urteko ekitaldi ekonomikoa BPGaren hazkunde batekin itxi da Euskal AEn, %3 inguruko hazkundearekin, hain zuzen; beraz, 1994az geroztik ez da eten hazkunde positiboen joera. Nahiz eta 2000. urtekoa %5,3koa izan zen, urte horretarako aurreikuspena batago dator Espainiako ekonomiarenarekin, eta bi kasuetan Europar Batasuneko herrialdeenaren gainetik dago, haien hazkunde aurreikusia %2tik beherakoa baita 2001erako.

Con relación a la oferta del mercado de trabajo, la población en edad laboral ha venido disminuyendo cada año muy ligeramente desde 1996, a la vez que la población total de la C.A. de Euskadi ha sido descendente desde finales de los 80. Desde entonces, la población viene sufriendo un proceso de envejecimiento por el aumento de la población de 65 y más años y la disminución de los menores de 16. La evolución de la población activa ha sido ascendente desde los años 80, aunque ha descendido en algún año puntualmente.

El 2001 continúa la línea de los últimos años de aumento del número de ocupados y disminución del número de parados, en ambos casos en mayor medida que en el año 2000.

**Euskal AEko lan-eskaintzaren zifrak. *2001*/2000**
Cifras de la Oferta de Trabajo en la C.A. de Euskadi. ***2001***/2000




(1) **Biztanleria aktiboen ehunekoak, 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren aldean**
Porcentaje de la población activa sobre la población de 16 años y más
(2) **Biztanleria langabearen ehunekoak, biztanleria aktiboaren aldean**
Porcentaje de población parada sobre la población activa
**Iturria**/Fuente: **EUSTAT**, **BJA**/PRA

Lan-merkatuaren eskaintzari dagokionez, lan-adinean dagoen biztanleria pixkanaka jaitsiz joan da urtetik urtera 1996tik, eta aldi berean Euskal AEko guztizko biztanleria beheranzkoa izan da 80ko urteen amaieratik. Orduz geroztik, biztanleriak zahartze-prozesu bat jasan du, bi arrazoiengatik: 65 urte eta gehiagoko biztanleria igoz joan da, eta 16tik beherakoa, berriz, jaitsiz. Biztanleria aktiboaren bilakaera goranzkoa izan da 80ko urteetatik, nahiz eta urteren batean zertxobait beheratu den.

2001ek azken urteotako bideari jarraitu dio: landunen kopuruaren igoera eta langabeen kopuruaren jaitsiera, bi kasuetan 2000. urtean baino neurri handiagoan.

## El número de ocupados aumenta en un 3,2% en 2001

Durante 2001 la cifra media del número de ocupados en la C. A. de Euskadi ha sido de 849.400, lo que supone un incremento del 3,2% con respecto al año anterior. La población ocupada ha aumentado en los tres Territorios Históricos. En términos relativos destaca el aumento en Álava (4,2%), seguido de cerca por Bizkaia (3,9%), siendo el crecimiento de Gipuzkoa algo menor (1,6%).

**16 urte eta gehiagoko biztanleria langabearen bilakaera (milakotan)**
Evolución de la población de 16 y más años parada (en miles)




**Iturria**/Fuente: **EUSTAT**, **BJA**/PRA

## Landunen kopurua %3,2 igo zen 2001ean

2001ean, landunen kopuruaren batez besteko kopurua 849.400ekoa izan da Euskal AEn, hau da, %3,2ko gehikuntza aurreko urtearen aldean. Biztanleria landuna hiru herrialde historikoetan igo da: balio erlatibotan Arabako igoera nabarmentzen da (%4,2); haren atzetik Bizkaia dator (%3,9), eta Gipuzkoako hazkundea txikixeagoa izan da (%1,6).

## El número de ocupados crece en todos los sectores de actividad, excepto en el primario

El volumen de ocupados ha aumentado en todos los sectores económicos, salvo en el primario, en el que desciende en algo más de 4.000 personas. En la industria ha crecido en 14.800, en los servicios en 10.800 y en la construcción alcanza casi 5.000 ocupados más, lo que supone el aumento relativo más importante (+6,5%), aunque muy similar al del sector industrial (+6,1%). El número de ocupados en el sector servicios crece menos en términos relativos (+2,2%).

## Landunen kopurua jarduera-sektore guztietan hazi da, lehenengo sektorean izan ezik

Landunen bolumena sektore ekonomiko guztietan igo da, lehenengo sektorean izan ezik (sektore horretan 4.000 pertsonatik goraxe jaitsi da). Industrian 14.800 igo da; zerbitzuetan 10.800, eta eraikuntzan ia 5.000 landun gehiago iritsi ditu. Hau da, igoera erlatiborik handiena sektore horretakoa izan da (%+6,5), industria-sektorekoaren oso antzekoa izan arren (%+6,1). Zerbitzu-sektoreko landunen kopurua gutxiago hazi da balio erlatibotan (%+2,2).

Atendiendo a la situación profesional, el número de empleados asalariados ha aumentado en un 3,2%. También en términos relativos, aumenta de forma notable el número de empleadores (+10,7%), aunque no tanto como los cooperativistas (+33,5%). Destaca la disminución del número de autónomos (-4.400 personas).

## En 2001 la temporalidad en el empleo se reduce ligeramente

Por otro lado, dentro de los asalariados, el número de los contratados indefinidos ha aumentado en un 6,2% en este año, mientras que el de los contratados temporales prácticamente no varía. Por ello, la proporción de contratados indefinidos sobre el total de asalariados, casi del 70%, es algo superior a la de 2000 (+1,9 puntos porcentuales). Sin embargo, este porcentaje es todavía inferior a los de 1993 y 1994.

***Mugagabe kontratatutako landunen proportzioa, landun soldatakoen guztizkoaren aldean 2000-2001 (ehunekotan)***
*Proporción de ocupados contratados indefinidamente sobre el total de ocupados asalariados 2000-2001 (en porcentajes)*

| | 2000 | 2001 |
|---|---|---|
| **Guztira** / Total | 66,6 | 68,5 |
| **Nekazaritza** / Agricultura | 69,9 | 66,1 |
| **Industria** / Industria | 73,9 | 74,9 |
| **Eraikuntza** / Construcción | 47,7 | 49,4 |
| **Zerbitzuak** / Servicios | 64,9 | 67,5 |
| **Gizonezkoak** / Varones | 72,0 | 73,5 |
| **Emakumezkoak** / Mujeres | 58,0 | 60,9 |
| 16-24 **urte** / años | 25,8 | 25,8 |
| 25-44 **urte** / años | 63,7 | 65,5 |
| 45 **edo gehiago** / o más | 88,2 | 89,3 |

**Iturria**/Fuente: **EUSTAT**, **BJA**/PRA

Lanbide-egoerari gagozkiolarik, enplegatu soldatakoen kopurua %3,2 igo da. Era berean, balio erlatibotan, modu nabarmenean igo da enplegatzaileen kopurua (%+10,7%), baina ez kooperatiba-kideena bezainbeste (%+33,5). Aipatzekoa da autonomoen kopuruaren beherapena (-4.400 pertsona).

## 2001ean laneko aldi baterakotasuna zertxobait gutxitu da

Bestalde, soldatakoen artean, kontratudun mugagabeen kopurua %6,2 igo da urte horretan; aldi baterako kontratudunena, berriz, ia ez da aldatu. Hori dela eta, kontratudun mugagabeek soldatakoen guztizkoaren aldean duen proportzioa, ia %70ekoa, 2000koa baino zertxobait handiagoa da (ehuneko +1,9 puntu). Hala ere, ehuneko hori oraindik ere 1993 eta 1994koa baino txikiagoa da.

Esta proporción en 2001 de casi 7 asalariados con contrato fijo por cada 10 asalariados no es uniforme en los colectivos estudiados. La proporción más elevada de contratados fijos se da en los asalariados de 45 y más años (casi 90%) y en la industria (75%).

En el otro extremo, están los más jóvenes (16 y 24 años) y los asalariados de la construcción, con un 25,8% y 49,4% de contratados indefinidos sobre el total de asalariados, respectivamente. Las mujeres con contratos indefinidos apenas alcanzan el 61%.

En general, la proporción de contratados fijos sobre los ocupados asalariados aumenta en un punto porcentual en todos los grupos desde el año 2000, salvo en la agricultura, sector en el que la proporción desciende, y entre los más jóvenes, que no varía.

## La tasa de paro cae del 13,7% al 11,1%

Junto con el aumento de la ocupación, en el año 2001 se produce una disminución del número de parados en unos 23.800 respecto a 2000, lo que supone un 18,3% menos. La tasa de paro se reduce al 11,1%, lo que supone 2,6 puntos menos que en 2000.

Por Territorios Históricos, el número de parados desciende en Álava y Bizkaia en un 20%, y en Gipuzkoa en un 12,5%. La tasa de paro de 2001 en Álava es del 9,2%, en Bizkaia del 13,5 y en Gipuzkoa del 8,3%. Ello supone 1,2 puntos porcentuales menos que en 2000 en Gipuzkoa, 3,3 en Bizkaia y 2,4 en Álava.

Si en 2000 la tasa de paro de Bizkaia se distanciaba 5,2 puntos porcentuales de la de Álava y 7,3 de la de Gipuzkoa, en 2001 la distancia se reduce ligeramente, a 4,3 puntos en el primer caso y a 5,2 en el segundo.

## La tasa de paro de las mujeres aún dobla la tasa de paro de los varones

En 2001 ha disminuido tanto el número de varones como el de mujeres paradas. En términos relativos, el número de parados varones ha descendido en un 21,3%, mientras que el de mujeres paradas lo hizo en un 16,2%. La tasa de paro masculina es del 7,5% y la femenina del 16,5%, con un descenso de 2 y 3,4 puntos, respectivamente en comparación con 2000.

Con respecto al año 2000, el diferencial en la tasa de paro por género casi ha disminuido un punto y medio porcentual, de 10,4 puntos a 9.

**16 urte eta gehiagoko biztanleria langabearen bilakaera (milakotan)**
Evolución de la población de 16 y más años parada (en miles)




**Iturria**/Fuente: **EUSTAT**, **BJA**/PRA

2001eko proportzio hori (kontratu finkoa duten ia 7 alokatu, 10 alokatu bakoitzeko) ez da berdina aztertu diren talde guztietan. Kontratudun finkoen proportziorik altuena 45 urte eta gehiagoko soldatakoen artean (ia %90) eta industrian (%75) izan da.

Beste muturrean, gazteenak (16 eta 24 urte) eta eraikuntzako soldatakoak daude: %25,8 eta %49,4 kontratudun mugagabe, soldatakoen guztizkoaren aldean, hurrenez hurren. Kontratu mugagabeak dituzten emakumeak, berriz, ia ez dira iristen % 61era.

Oro har, kontratudun finkoek landun soldatakoen aldean duten proportzioa ehuneko puntu bat igo da talde guztietan 2000. urtetik, nekazaritzan –sektore horretan jaitsi egiten da proportzioa– eta gazteenen artean izan ezik –ez da aldatzen–.

## Langabezia-tasa %13,7tik %11,1era jaitsi da

Enpleguaren igoerarekin batera, 2001. urtean langabeen kopuruaren beherapena gertatu da (23.800 gutxiago), 2000ren aldean, hau da, %18,3 gutxiago. Langabezia-tasa % 11,1era murriztu da, hau da, 2000an baino 2,6 puntu gutxiago.

Herrialde historikoka, langabeen kopurua % 20 jaitsi da Araban eta Bizkaian, eta % 12,5 Gipuzkoan. 2001eko langabezia-tasa %9,2koa da Araban, %13,5ekoa Bizkaian, eta %8,3koa Gipuzkoan. Hau da, 2000an baino ehuneko 1,2 puntu gutxiago Gipuzkoan, 3,3 Bizkaian eta 2,4 Araban.

2000n Bizkaiko langabezia-tasa ehuneko 5,2 puntu urruntzen zen Arabakotik, eta 7,3 Gipuzkoakotik; 2001ean, aldiz, aldea zertxobait murriztu da, 4,3 puntura lehen kasuan eta 5,2ra bigarrenean.

## Emakumezkoen langabezia-tasak oraindik ere gizonezkoena bikoizten du

2001ean, gizonezko zein emakumezko langabeen kopurua jaitsi da. Balio erlatibotan, gizonezko langabeen kopurua %21,3 beheratu da; emakumezko langabeena, berriz, %16,2 jaitsi da. Gizonezkoen langabezia-tasa %7,5ekoa da; emakumezkoena, berriz, %16,5ekoa. 2000aren aldean, 2 eta 3,4ko jaitsierak izan dituzte, hurrenez hurren.

2000. urtearen aldean, generokako langabezia-tasaren aldea ia ehuneko puntu eta erdi jaitsi da: 10,4 puntutik 9 puntura.

## La tasa de paro juvenil desciende en 4 puntos

Por otro lado, disminuye el número de parados en los grupos de edad de 16 a 24 años (-25,8%) y en el de 25 a 44 años (-19,5%). En el grupo de 45 y más años (el que menor número de parados contiene) no varía. La tasa de paro juvenil es del 25,5%, 4 puntos inferior a la de 2000.

Destaca el descenso del número de parados que llevan dos o más años buscando empleo, que son 31.500 (-40%), casi a la mitad en el último año. Con ello, estos parados suponen menos de un tercio del total de parados, cuando en 2000 representaban algo más del 40% del total.

## La tasa de actividad femenina todavía es 5 puntos inferior a la de la Unión Europea

Desde un punto de vista comparativo, se producen algunas diferencias entre los indicadores del mercado de trabajo de la C.A. de Euskadi en 2001 y de la Unión Europea (los últimos datos disponibles son de 2000).

La tasa de actividad vasca para la población de 16 y más años es algo inferior a la del promedio europeo (53,4% y 56%, respectivamente), mientras que la de los varones en ambos casos son casi iguales (65,5% y 65,8%). Sin embargo, la tasa de actividad femenina europea es 5 puntos superior a la de la C.A. de Euskadi (46,9% y 41,9%, respectivamente).

Continuando con la actividad, la C.A. de Euskadi tiene una posición intermedia en el conjunto de las Comunidades Autónomas. Además, las tasas de actividad vascas, siendo más bajas que las europeas, son algo más elevadas (aproximadamente 2 puntos) que en el promedio de España.

## Gazteen langabezia-tasa 4 puntu beheratu da

Bestalde, langabeen kopurua jaitsi da 16-24 urteko adin-taldeetan (%-25,8) eta 25-44 urtekoan (%-19,5). 45 urte eta gehiagoko taldean (langabeen kopuru handiena duenean) ez da aldatu. Gazteen langabezia-tasa % 25,5ekoa da, 2000koa baino 4 puntu txikiagoa.

Aipatzekoa da lan bila bi urte edo gehiago daramaten langabeen kopuruaren jaitsiera, 31.500 baitira (%-40), ia erdiak azken urte horretan. Hori dela eta, langabe horiek langabeen guztizkoaren heren bat baino gutxiago hartzen dute; 2000an, aldiz, guztizkoaren %40tik goraxe hartzen zuten.

## Emakumeen aktibotasun-tasa oraindik ere Europar Batasunekoa baino 5 puntu txikiagoa da

Alderatze-ikuspuntu batetik, alde batzuk daude 2001eko Euskal AEren lan-merkatuari buruzko adierazleen eta Europar Batasuneko adierazleen artean (azken datu eskuragarriak 2000koak dira).

16 urte eta gehiagoko gure erkidegoko biztanleriaren aktibotasun-tasa Europako batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa da (%53,4 eta %56, hurrenez hurren); gizonezkoenak, berriz, ia berdinak dira bi kasuetan (%65,5 eta % 68,8). Europako emakumezkoen aktibotasun-tasa, aldiz, Euskal AEkoena baino 5 puntu handiagoa da (%46,9 eta %41,9, hurrenez hurren).

Aktibotasunarekin jarraituz, Euskal AEk bitarteko toki bat dauka autonomia-erkidegoen multzoan. Gainera, gure erkidegoko aktibotasun-tasak, Europakoak baino txikiagoak izan arren, Espainiako batez bestekoan baino zertxobait altuagoak dira (2 puntu gutxi gorabehera).

**Aktibotasun- eta langabezia-tasak Europar Batasunean, Espainian eta Euskal AEn (%)**
Tasas de actividad y paro en la Unión Europea, España y C.A. de Euskadi (%)




**Iturriak**/Fuentes: EUROSTAT: EFT 2000; INE EPA 2001; **EUSTAT**, **BJA 2001**/PRA 2001. **Eustatek egina**/Elaboración propia

## La tasa de paro juvenil es casi 10 puntos más elevada que la de la UE

Respecto a las tasas de paro, y en comparación con la Unión Europea (2000), las diferencias son más acusadas, ya que la tasa de paro promedio de todos los países es casi 3 puntos inferior a la de la C.A. de Euskadi. Las tasas de paro masculinas son prácticamente iguales. Las diferencias principales están en la tasa de paro femenina, ya que la tasa vasca es más de 6 puntos superior, y en la tasa de paro juvenil, que en la C. A. de Euskadi es casi 10 puntos más elevada.

En comparación con el resto de las Comunidades Autónomas, la tasa de paro de la C.A. de Euskadi es casi dos puntos inferior al promedio de éstas. Esta diferencia también se da en las tasas de paro masculina y femenina. Sin embargo, la tasa de paro juvenil de la C.A. de Euskadi es casi un punto superior a la del promedio de las Comunidades Autónomas.

## La proporción de contratados indefinidos en los asalariados en la C.A. de Euskadi es todavía muy inferior a la media de la Unión Europea

En el campo de la ocupación se sigue produciendo una diferencia muy notable en cuanto a la estabilidad en el empleo. El ligero aumento de la proporción de contratados fijos en la C.A. de Euskadi (que ha pasado al 68,5%) durante el último año apenas ha acercado las diferencias tan grandes que existen en este aspecto con relación al promedio de los países de la Unión Europea.

Según la última Encuesta de Fuerzas de Trabajo (2000), en el promedio de los países europeos más de 8 de cada 10 asalariados tienen un contrato indefinido y en ningún país esta proporción es inferior al 80%, salvo en España (66,9%).

## GLOSARIO

**Población activa.** La población de 16 y más años se divide en población activa y población inactiva. La población activa es la que trabaja (población ocupada) o está en condiciones de trabajar y busca empleo (población parada).

**Población ocupada**: Personas que poseen un empleo remunerado o ejercen una actividad independiente y se encuentran trabajando, o bien, mantienen un vínculo formal con su empleo, estuvieron ausentes del trabajo por vacaciones, enfermedad, conflicto laboral, incidentes técnicos, etc.

**Población parada**: Personas que no poseen un empleo asalariado o independiente, están buscando empleo y están disponibles para trabajar. La definición de población parada según Reglamento de la Comisión Europea 1897/2000 (que restringe el colectivo a aquellas personas que han realizado gestiones de búsqueda de empleo de tipo activo en las cuatro semanas anteriores a la realización de la encuesta) se aplica a partir de 2002.

**Población inactiva**: Población que no está ocupada ni parada; incluye a las personas que realizan las tareas del hogar, los que cursan estudios, los jubilados, los pensionistas, los rentistas y los incapacitados.

**Tasa de actividad de un grupo**: Proporción de activos sobre la población de 16 y más años de ese grupo. EUROSTAT calcula las tasas de actividad para la población de 15 y más años.

**Tasa de paro de un grupo**: Proporción de parados sobre el total de activos de ese grupo.

## Gazteen langabezia-tasa EBkoa baino ia 10 puntu handiagoa da

Langabezia-tasei dagokienez, eta Europar Batasunarekin alderatuz (2000), aldeak nabarmenagoak dira, zeren herrialde guztien batez besteko langabezia-tasa Euskal AEkoa baino 3 puntu txikiagoa baita. Gizonezkoen langabezia-tasak ia-ia berdinak dira. Alde handienak emakumezkoen langabezia-tasetan daude, zeren gure erkidegoko tasa 6 puntutik gora handiagoa baita, bai eta gazteen langabezia-tasan ere, Euskal AEn ia 10 puntu altuagoa baita.

Gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuz, Euskal AEko langabezia-tasa erkidego horien batez bestekoa baino ia bi puntu txikiagoa da. Alde hori bera gertatzen da gizonezkoen eta emakumezkoen langabezia-tasetan. Euskal AEko gazteen langabezia-tasa, dena dela, autonomia-erkidegoen batez bestekoa baino ia puntu bat handiagoa da.

## Kontratudun mugagabeek Euskal AEko soldatakoetan duten proportzioa oraindik ere Europar Batasuneko batez bestekoa baino askoz txikiagoa da

Enpleguaren arloan, oraindik ere alde oso nabarmena dago enpleguaren egonkortasunari dagokionez. Euskal AEko kontratudun finkoen proportzioak joan den urtean izan zuen igoera txikiak (%68,5era pasa baita) ia ez ditu hurbildu alderdi horretan dauden alde handiak, Europar Batasuneko herrialdeetako batez bestekoaren aldean dauden aldeak, hain zuzen.

Azkeneko Lan Indarren Inkestaren arabera (2000), Europako herrialdeen batez bestekoan, 10 soldatakotik 8k baino gehiagok kontratu mugagabea dute, eta proportzio hori ezein herrialdeetan ere ez da %80tik beherakoa, Espainian salbu (%66,9).

## GLOSATEGIA

**Biztanleria aktiboa:** 16 urte eta gehiagoko biztanleria bi taldetan banatzen da: biztanleria aktiboa eta biztanleria ez-aktiboa. Biztanleria aktiboa lan egiten duena (biztanleria landuna) edo lan egiteko prest dagoena (biztanleria langabea) da.

**Biztanleria landuna:** enplegu ordaindu bat eduki edo jarduera beregain bat egikaritu eta lanean dihardutenak, edota, enpleguarekiko lotura formal bat dutenak eta lanetik kanpo egon zirenak (oporrak, gaixotasuna, lan-gatazka, gorabehera teknikoak, etab. direla eta).

**Biztanleria langabea:** enplegu alokaturik edo beregainik ez eduki eta aktiboki lan bila ibili eta lan egiteko prest daudenak. Europar Batzordearen 1897/2000 Erregelamenduaren araberako biztanleria-definizioa (zeinak langabeen taldea inkesta egin aurreko lau asteetan mota aktiboko lan-bilaketako kudeaketaren bat egin duten langabeetara murrizten baitu) 2002az geroztik aplikatzen da.

**Biztanleria ez-aktiboa:** landuna edo langabea ez den biztanleria; hor sartzen dira etxeko lanak egiten dituztenak, ikasten ari direnak, erretiratuak, pentsiodunak, errentadunak eta ezgaituak.

**Talde baten aktibotasun-tasa:** aktiboen kopurua, talde bateko 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren aldean. EUROSTATek 15 urte eta gehiagoko biztanleriari buruz kalkulatzen du aktibotasun-tasa.

**Talde baten langabezia-tasa:** langabe-kopurua, talde horretako aktiboen guztizkoaren aldean.

## Cambios en la definición de la población parada en 2002

A partir del 2002, el criterio de clasificación de la encuesta se va a adaptar a la definición armonizada de población parada del Reglamento de la Comisión Europea 1897/2000. Según dicho Reglamento, se cambia el modo de hacer operativa la definición de la OIT y se consideran paradas solamente aquellas personas que han realizado gestiones de búsqueda de empleo de tipo activo en las cuatro semanas anteriores a la realización de la encuesta.

El Reglamento excluye del colectivo de parados a aquellos individuos cuyo único modo de búsqueda de empleo, en estas cuatro semanas, ha sido contactar con la oficina pública de empleo para realizar el trámite administrativo de renovar la demanda ("sellar la cartilla") u otros trámites relacionados con los cursos de formación. Siempre, según el citado Reglamento, para que sean considerados activos, los contactos con la oficina pública de empleo deben estar relacionados con la búsqueda de trabajo, como registrarse por primera vez, actualizar los datos de la demanda, informarse sobre las ofertas, etc.

## Cambios en la Encuesta de Población en Relación con la Actividad

Para aplicar el Reglamento de la Comisión se han llevado a cabo dos cambios en la Encuesta: en primer lugar, se ha utilizado el criterio de haber realizado gestiones de búsqueda de empleo en las cuatro últimas semanas, en lugar del de buscar empleo, sin período de tiempo (esta pregunta ya existía en el cuestionario); en segundo lugar, se han introducido las preguntas sobre el tipo de gestiones realizadas en ese período y distinguir a aquellas personas que han realizado alguna gestión de tipo activo.

El efecto de la aplicación de los dos criterios anteriores es la reducción de la población parada y el aumento de la población inactiva en esa misma medida. En comparación con la definición anterior, se van a reducir las tasas de paro y, consecuentemente, las tasas de actividad.

## Aldaketak biztanleria langabearen definizioan 2002an

2002az geroztik, inkestaren sailkapen-irizpidea Europar Batzordearen 1897/2000 Erregelamenduko biztanleria langabearen definizio harmonizatura egokituko da. Erregelamendu horren arabera, aldatu egiten da LANEren definizioa eraginkor bihurtzeko modua, eta langabetutzat jotzen dira soilik aurreko lau asteetan mota aktiboko lan-bilaketako kudeaketaren bat egin duten langabeak.

Erregelamenduak langabeen taldetik salbuesten ditu enplegu-bilaketako modu ez-aktiboak erabili dituzten pertsonak, hau da, azken lau asteetan, enplegu-bulego publikora eskaria berritzeko izapide administratiboren bat egitera (kartilla zigilatzera) edo prestakuntza-ikastaroekin lotutako kudeaketaren bat egitera soilik joaten direnak. Betiere aipatutako erregelamenduaren arabera, aktiboak kontsideratu daitezen, enplegu publikoko bulegoarekiko harremanek erlazionatuta egon behar dute lan-bilaketarekin, hala nola, lehen aldiz izena eman, eskariaren datuak eguneratu, eskaintzei buruz informatu, etab.

## Aldaketak Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkestan

Batzordearen erregelamendua aplikatzeko, bi aldaketa egin dira inkestan: lehenik, azken lau asteetan lan-bilaketako kudeaketak egin izanaren irizpidea erabili da, eta ez denbora-aldirik gabe lana bilatzearena (galdera hori aurretik ere agertzen zen galdeketan); bigarren, aldi horretan egindako kudeaketa-motari buruzko galderak sartu dira, mota aktiboko kudeaketaren bat egin duten pertsonak bereizteko.

Bi irizpide horiek aplikatzearen ondorioa zera da: biztanleria langabearen murriztea eta biztanleria ez-aktiboaren igoera neurri horretan berean. Aurreko definizioarekin alderatuta, langabezia-tasak –eta, ondorioz, aktibotasun-tasak– murriztuko dira.

*La Encuesta de Población en Relación con la Actividad (PRA) es una operación estadística que viene realizándose por* ***Eustat*** *desde 1985. Tiene por objeto fundamental producir información continua sobre la oferta del Mercado de Trabajo de la C.A. de Euskadi. Trimestralmente da cuenta de la población ocupada, parada e inactiva, así como de sus variaciones y de las principales características sociales de estos colectivos.*

*Los datos de la PRA están sujetos a errores de muestreo derivados de la utilización de una muestra formada por 3.750 familias de la C.A. de Euskadi, a las que se encuesta cada trimestre, formando un panel. Los errores de muestreo de la PRA están en* ***Eustat*** *a disposición de los usuarios interesados. El cálculo de la población ocupada puede tener una oscilación de ±3% del valor publicado, y el de la población parada del ±10%. La tasa de paro, por su parte, puede oscilar un punto porcentual arriba o abajo (datos del 4º trimestre de 2001).*

*Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta (BJA) da 1985etik* ***Eustat****ek egiten duen estatistika-eragiketa bat. Helburu nagusitzat dauka Euskal AEko lan-merkatuaren eskaintzari buruzko aldian behingo informazioa eskaintzea. Hiru hilean behin, biztanleria landunaren, langabearen eta ez-aktiboaren berri ematen du, bai eta talde horien gorabehera nagusiei eta gizarte-ezaugarriei buruz.*

*BJAren datuak laginketa-akatsei atxikita daude, Euskal AEko 3.750 familiek osatutako lagin baten erabilpenetik ateratako akatsei, hain zuzen. Familia horiei hiru hilean behin egiten zaie inkesta, panel bat osatuz. BJAren laginketa-akatsak* ***Eustat****en daude, erabiltzaile interesatuen eskueran. Biztanleria landunaren kalkuluak %±3ko gorabehera izan dezake argitaratutako balioan; biztanleria langaberenak, berriz, %±10ekoa. Langabezia-tasa, bestalde, ehuneko puntu bat mugi daiteke gora edo behera (2001eko 4. hiruhilekoko datuak).*

**INFORMAZIO-ESKAERA** / SOLICITUD DE INFORMACIÓN

**Galderaren bat egin nahi badazu edo datu gehiago behar badazu, hemen aurkituko gaituzu:**
Para cualquier consulta o ampliación de los datos, pueden dirigirse a:

EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística)
Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 01 75 00
Faxa: 945 01 75 01
e-mail: eustat@eustat.es
www.eustat.es

Eustat

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO